



HAL
open science

**Nor-Nori, Nor-Nork eta Nor-Nori-Nork sailtako
hirugarren pertsona pluralaren morfemaren aldaerak
Joaquín Lizarraga Elkanokoaren aditzean.**

Ekaitz Santazilia

► **To cite this version:**

Ekaitz Santazilia. Nor-Nori, Nor-Nork eta Nor-Nori-Nork sailtako hirugarren pertsona pluralaren morfemaren aldaerak Joaquín Lizarraga Elkanokoaren aditzean.. 2006. artxibo-00101704v1

HAL Id: artxibo-00101704

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00101704v1>

Submitted on 27 Sep 2006 (v1), last revised 28 Sep 2006 (v2)

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

**Nor-Nori, Nor-Nork eta Nor-Nori-Nork
sailetako hirugarren pertsona
pluralaren morfemaren aldaerak
Joaquín Lizarraga Elkanokoaren
aditzean.**

Ekaitz Santazilia
Euskal Testuak
Euskal Filologian Liz. 1.
2006-05-24

AURKIBIDEA

0. SARRERA	3
1. LANERAKO PROZEDURA ETA IRIZPIDEAK	3
2. HIPOTESIEN EGIAZTATZEA	4
LETRA ETZANA VS. ARRUNTA.....	4
PERTSONAIEN HIZKERAK.....	5
ADITZ ERABILIENAK.....	5
PERPAUS MOTAK.....	6
ADITZ MOTAK.....	7
*edun.....	7
*ezan.....	8
izan.....	9
*edin.....	9
trinkoak.....	9
ADITZAREN INGURUKO ELEMENTUAK.....	9
AZENTUA.....	10
Oxitonoak.....	10
Paroxitonoak.....	10
Proparoxitonoak.....	11
IKUSPEGI DIAKRONIKO ETA SINKRONIKOA.....	11
Obrak eta datak.....	12
Beriayn eta Elizalde.....	13
3. ONDORIOAK	14
4. BIBLIOGRAFIA	15

0. SARRERA

Aspaldi da Joaquín Lizarraga (1748-1835) Elkanoko apaizarengan begiak paratu genituela. Elkanoko euskararen, eta oro har hegoaldeko goi-nafarreraren XVIII. Mendeko lekuko bakarra izanik balio handia baitute bere idazkiek ikuspegi dialektologiko zein soziolinguistikotik, izan ere, bere garaian euskarak eskualdean zuen indarraren isla baita. Balio literarioa ordea eztabaidagarriagoa da, baina azken gai hau beste baterako utziko dugu, Lizarragaren aditzaren morfologiako atal bati lotzeko. Asko dago ikertzeke Elkanokoaren inguruan, eta dagoena ere ez da idazle honek merezi lukeen sakontasunez burutua izan, beraz zalantza ugari sortzen zaizkigu oraindik. Horietako bat da lan honetan aztergai duguna, eta honi argi pizar bat ematen saiatuko gara. Gure auzia, aditzean hirugarren pertsona pluralaren morfemarekin dago lotua.

Euskaltzaindiak euskara baturako hartutako morfema *-zue(-)* dugu; *duzue*, *dakarkizuet* edo *nizuen* bezalako adizkietan ikus daitekeen moduan. Bistan da hainbat euskalkitan hau ez dela horrela, Lizarragarenean kasu. Guri dagokigun autorean bi modutan ebazten du forma hau, batzuetan *-zie(-)* eta beste batzuetan *-ze(-)* eginenez. Gure helburua forma bata zein bestea hautatzeko irizpidea bilatzea izanen da eta hau lortzen ez badugu, bederen gaia ahal bezainbeste hausnartzea.

1. LANERAKO PROZEDURA ETA IRIZPIDEAK

Txandaketa honen berri eman ahal izateko, ezinbestekoa zaigu korpusa arakatzea, hots, Joaquín Lizarragaren testuetan aztertu nahi dugun morfema duten adizkiak bilatu eta sailkatzea. Horretarako, argitaratu diren obrak eskuratu eta banan banan irakurtzea izan da bide bakarra, forma bat aurkitutakoan datu basean sartuz, adizki bakoitzaren modua, aldia, pertsona, kokalekua eta bestelako informazioa gehitzearekin batera.¹ Bidezkoena korpus osoa aztertzea bada ere, astirik ezagatik lan batzuk hautatu eta haien zatiak miatu ditut. Behaketa egin ahala sortutako hipotesiak gerora baieztatu edo ezeztatuak izan dira, lanean zehar ikusiko dugunez. Gainera, edizilogileak adizkiak ongi traskribaturik zituen konprobatzea ezinbestekoa da, edizioa eta eskuizkribu orijinala erkatuz. Lan luzea zatekeen hau, baina forma batzuk bederen parekatu ditugu, Nafarroako Artxibo Orokorrean dauden eskuizkribuak arakatzuz. Esan beharra dago ez direla gutxi topatutako traskribapen akatsak.

Hona hemen bada, lanerako baliatutako argitalpenak edo berauen zatiak, eta egokitu diegun laburdura:²

Argitalpena	Zatia	Laburdura
Apecechea, J., 1975	osoa	FS1-3 ³
Apecechea, J., 1978	osoa	FM1
Apecechea, J., 1981	osoa	FM3
Apecechea, J., 1982	osoa	FM4
Apecechea, J., 1985	osoa	FM5

¹ Edizio digital zein ganorazko edizio kritiko ezak lana oztopatu baino ez du egin, errazagoa bailitzateke dena ordenagailu bidez bilaketak egitea balego, edo edizio kritikoek aditz zerrendak ekarriko balituzte. Hala ere, eskerrak eman behar dizkiot Susa argitaletxeko *Armiarma.com* webguneko arduradunei, haiek dituzten Lizarragaren izkribuen traskribapenak igorri baitizkirate, oraindik webgunean sartu ez badituzte ere.

² Hemen soilik autorea eta urtea agertuko dira, informazio osoa lortzeko, ikus bibliografia.

³ Zenbakia sermoiaren zenbakiarekin bat dator.

Apecechea, J., 1987	osoa	FM6
Bonaparte, L. L., 1991	34. or. arte	BEJ
Lizarraga, J., J. Apecechea (arg.), 1983	osoa	K
Lizarraga, J., J. Apecechea (arg.), 2004	117. or. arte	DCC
Lizarraga, J., J. Apecechea & F. Ondarra (arg.), 1994	208.or. arte	AJM
Lizarraga, J., P. Ondarra (arg.), 1990	58.or. arte	IPL
Satrustegi, J.M., 1976	osoa	FB

* Apecechea, J., 1975, 2.sermoia; Apecechea, J., 1979; Apecechea, J., 1990 eta Lizarraga, J., 1922 argitalpenetan ez dut forma bakar bat ere topatu.

Grafiari dagokionez, argitalpenak gorde duena erabili da, halere, oro har edizilogileek jatorrizko grafia gorde dutela esan daiteke, Bonapartek zertxobait aldatu bazuen ere, klitikoak gidoi batez bereiziz esate baterako.

Azkenik, derragun azentuez, bakarrik esaldi osoak aipatzerakoan sartu ditugula eta ez adizki soila agertzean, azentuaren kokapena esaldiaren arabera aldatzen dela ulertzen baitugu.

Hartara, lanari lot gatzaizkion.

2. HIPOTESIEN EGIAZTATZEA

Lan honetan jarraituko dugun metodoa, sortu zaizkigun hipotesiak banan banan aztertzea izango da, hipotesi horren aldeko eta kontrakoa argudioak emanaz, lanaren akabailan ondorioa ateratzeko asmoz. Hauetako hipotesi batzuk *a priori* formulatuak dira, eta Lizarragaren obra aztertu bezain laster antzuak edo zentzugabeak zirela ikusi dugu, hala ere, hemen sartzea erabaki dugu, inoiz inork bere ikerketetan bide hau hartu nahi balu, hainbat ideia agortuak daudela jakin dezan.

Testuen lehendabiziko begi kolpean, guri interesa zaizkigun formak nagusiki kurtsibaz (originaletan azpimarraturik) agertzen diren pasarteetan ematen direla ikusten dugu. Logika baino ez da, kurtsibazko zatiok aipuz zuzenak direlako, eta kontuan har dezagun estilo zuzenean batik bat agertuko zaizkigula –zue(-)dun formak, hots, norbait talde bati zuzentzen zaionean:

- *Icusáze lécuá* (AJM 58 75.35s)⁴

Hortaz, pentsa daitekeen lehendabiziko gauza, aipu hauetan sinkopatuak erabiltzen baditu, kurtsibaz ez daudenetan, esan nahi baita, aipu zuzenak ez direnetan sinkopatu gabeak erabiliko dituela, edo alderantziz. Hau konprobatzea arront erraza da, aski baitugu aipuetan

⁴ Forma testuan aurkitzeko bidea dugu parentesi artekoa: lehen letrak lehen aipatu laburdurei dagozkie, geroko zenbakia orrialdeari, espazioaren ondorengo zenbakia parrafoaren zenbakiari dagokio (parrafoak zenbakituak badaude soilik), puntuaren ondorengo zenbakia lerroa da (parrafoarena) eta *s* edo *d sinistra* eta *diestra* hitzen laburdurak dira, hots, ezkerreko edo eskuineko testu zutabeen agertzen den.

forma sinkopatuak eta sinkopatu gabeak bilatzea, gero aipu zuzenak ez direnekin (kurtsibaz ez daudenekin, alegia) gauza bera egiteko.

Kurtsibaz:

- *etzaiztela lótsa, cerén ezi ematendiziet bérri ón alégre andibát gucién oneráco*(AJM 25 15.7s), *baita jaiiozaizela Christo Jauna* (AJM 25 15.8s)

Letra arruntean:

- *nola icusidúzién igáten* (AJM 61 75.13s)
- *nola engañatzen dúzén mundua!* (AJM49 51.9d)

Beraz eta argi dagoenez, bi eruedetan bietariko formak aurki ditzakegu, zenbaitetan eta lehendabiziko adibidean ikusten den bezala, esaldi berberaren barnean. Hartara, irizpide hau ez dugu morfemaren aldaeren zergatia ulertzeko bide.

Bestalde, estilo zuzen hau antzerkia bezala harturik, hau da, testuok jende aurrean irakurtzekoak zirela ulerturik, pentsa liteke pertsonaia bakoitzari bere hizkera eman diola Lizarragak, pertsonaia batzuek adizki sinkopadunak eta beste batzuek sinkopa gabeak erabiliz. Hau gauza inprobablea da *a priori*, testu hauen helburua ez delako literarioa, funtzionala baizik. Beha diezaiegun honako adibideei:

- *etzaiztela lótsa, cerén ezi ematendiziet bérri ón alégre andibát gucién oneráco*(AJM 25 15.7s), *baita jaiiozaizela Christo Jauna* (AJM 25 15.8s)
- *ecártzie oraietán arrapatutúzién arraietáic* (AJM 60 64.6d)
- *baduzé aguián cerbáit jatecoríc?*(AJM 60 74.15s)

Hemen aingerua artzainei mintzo zaie, eta ikusten dugunez bi formak erabiltzen ditu. Hurrengo bi adibideak Jesusen hitzak dira eta lehenbizikoetan *-zie-* aurkitzen badugu ere, hurrengo adibidean *-ze* kausitzen dugu, adibide guztiak liburuki berekoak direla kontuan izanik. Beraz, pertsonaien araberako sailkapena ez da zuzena, hasieratik uste genuen bezala.

Argi dago sinkopatu/sinkopatu gabe terminologia erabili dugunetik, *-ze(-)* *-zie(-)*ren forma sinkopatua dela, hortaz pentsatzekoa da aldaerarik luzeena zaharrena dela, eta bestea berriz formarik berriena, erabileraren poderioz sortua. Hau horrela, honek zera pentsatzera eraman gintuen: baliteke aditz nagusi erabilienekin sinkopa gertatzea eta berezienekin ez; edo, adizki laguntzaile erabilienak sinkopatzea, besteak bere horretan geratuz. Dakusagun bada, zuzen genbiltzanetz.

Aditz nagusi erabilienetarikoak:

- *erratendizet* (AJM 41 38.4d), baina *erratendiziet* (AJM 124 1.27d)
- *icusacie* (BEJ 27 IV.29.1), baina *icusáze* (BEJ 16 I.39.1)
- *eztidaze sinetsico* (DCC 117 Ibis.9), baina *eztidázie sintestátzen* (IPL 48 16.9)

Aditz laguntzaile erabilienetarikoak:

- *duzue: duce* (BEJ 18 I.51.2) baina *ducie* (BEJ 16 IV.22.1)
- *dizuet: diciet* (BEJ 27 IV.35.3), baina *dicet* (BEJ 31 V.19.1)

- *icusazie* (FM6 16.5.12), baina *cumplizaze* (K 40 183g)⁵

Ikus dezakegunez, forma ohikoenetan ere bi alomorfoak aurki ditzakegu. Are gehiago, hain ohikoak ez direnetan ere bietarikoak agertzen dira. Aipagarria da gainera hipotesi hau deusezteko, “duzue” bezalako (eta honetatik eratorriak barne: duzuela, duzuen...) adizki horren erabilian, 89 aldiz agertzen baitzaigu datu basean, 35 aldiz azaltzen zaigula sinkopaturik, beraz, adibideen erdian, suposatu behar denean gehiengoa sinkopadunek hartu beharko zutela. “Ezazue”ren kasuan aldiz (60 aldiz datu basean), forma sinkopadunak dira nagusi, 38 izanik. Beraz, beste irizpide bat bilatu beharrean gaude.

Perpauis motak aztertzea dugu hurrengo lana. Baliteke perpauis motaren arabera aditza moldatzea. Hasteko, ugariak dira perpauis konpletiboak, normalean –ela menderagailuaz sortuak.

- *sinés diót icusicoduciéla daucazengáu* (IPL 13 1at 7)
- *ain simplequi dezaquezéla sinésta zarr gaichstogóien guezúrra?* (IPL 40 13.13-14)

Bi adibideak miatuz gero, begi bistan da batean sinkopa gertatzen dela, eta bestean ez, bi adibideak obra berekoak direla ikusirik (IPL). Perpauis erlatiboak usu aurkitzen dira Lizarragaren lanean, azpiko esaldiek frogatzen diguten bezala.

- *ezin aurquidezaquezénac denboráic arendaco* (FS2 16 1.20)
- *secula seculorum descansuric izambearestuziénac zeuren cúlpas* (FS2 16 1.25)
- *au eguitenduzién aldioro* (AJM 44 43.1s)
- *zuén erdian egon-da zuéc ezauntzen-etzucéna* (BEJ 15 I.26.3)

Berriz ere, orotarik topa dezakegu, adizki bera erabilita ere (duzue), baiezko zein ezezkoetan edota erlatiboari artikulua gehiturik ere. Ohartzen baldin bagara, lehen bi adibideen artean bost lerrotako aldea baino ez dago guk erabilitako edizioan, bakoitzak alomorfo desberdina baliaturik ere. Ikus dezagun zer gertatzen den baldintzazko perpauisetan.

- *erratenbadizet, eztidáze sinetsico* (DCC 117 1(bis).9)
- *Eguia erratenbadiziet, cergátic eztidázie sinestátzen?* (IPL 48 16.9)
- *galdeguiten badizet cerbáit, eztidáze errespondatúco* (AJM 48 50.22d)

Hiru perpauisak oso antzekoak arren (lehen biak batik bat), bigarrean bakarrik aurkituko dugu –zie-dun forma.. Esan bezala, lehen bi esaldiak parekoak dira semantikoki, baina lehen eta hirugarrenak antza sintaktiko handiagoa dute. Pentsa liteke bigarren adibideko ondorioak dakarren galdera horrek eragina duela aurreko aditzean? Tamalez, adibide faltagatik ez zaio galdera honi behar bezala erantzuten ahal. Hori bai, baldintzan erabilitako aldaera ondorioan ere badarabilela pentsatzerik duenak, honako adibidean ikusiko du nola hau ere ez den hain erregularra.

- *ni billatzenbanauze, uzquizie ebéc doacila* (AJM 46 46.12s)

Iker ditzagun bada, kausazko mendeko perpauisak, bait- menderagailuaz eginak usuen.

⁵ Koplen kasuan, lehen zifra orriari dagokio, bigarrena ahapaldiari eta letra ahapaldiko lerroari. Ondoren s edo d agertuz gero, *sinistra* edo *diestra*.

- *Lurréco gauzac erran-baiticiet* (BEJ 22 III.12.1)
- *erraten-baiticiet cerúcoac?* (BEJ 22 III.12.2)
- *Jaun naizeláic, garbitu baitizet zuéi oñac* (AJM 43 41.32-33s)
- *Begüira Escritúrac, uste-baitúcie zuéc ayetán duciéla vicitza etérnoa* (AJM 33 V.39.1)

Oraingoan ere, bi eratakoak aurkitu ditugu, hala ere, ez dugu uste hain gauza soila denik. Ohartzen baldin bagara, Lizarragarentzako berdin ebakiko lirakeke *baitizuet* eta *baitizkizuet* formak: *baitiz(i)et*. Edo *baituzue* eta *baitituzue*: *baituz(i)e*. Beraz homofonia garbi baten aurrean geundeke. Honen harira, pentsa liteke sinkretismo hura apurtzeko morfema bat edo beste erabil zezakeela. Lehen eta bigarren adibideetako objektuak pluralak dira eta bietan –zie- egiten du. Hirugarren adibidean –ze- egiten du objektua plurala izanik ere, baina aditza eta objektuaren artean izenordaina sartu duenez, ekialdeko euskalkietan hain ohikoak diren komuntadura falta bat eman zitekeen, eta bertan agertzen zaigun aditza *baitizuet* izatea, eta ez *baitizkizuet*. Baina azken esaldian –zie- egin arren, objektua singularra da. Salbuespen gehiegi eta adibide gutxiegi araua bermatzeko. Halere, argi printzak ikusiak genituenez, hipotesia erabat baztertu aurretik beste sinkretismo kasu batzuekin konparatu nahi genuen, bai eta konparatu ere. Lizarragarengan *nauz(i)e* topatzean, *nahi duzue* edo *nauzue* uler dezakegu, kontestuak auzia berehala argitzen badigu ere, honako adibideek erakutsi moduan.

- *zuéc deitzennauze ni Maestru* (AJM 43 41.30s)
- *Ni etorri-náiz ene Aitarén icénean, eta ez-naucie errecibitzen* (BEJ 33 V.43.1-2)
- *Biz zuén escúra⁶, / cein nauzen bietáic* (K 92 214f)
- *cergátic nauzie igués eguin patriatic?* (AJM 96 3.1s)

Bistan denez, lehen bi lekukotasunetako adizkiak *zuec-ni* sailekoak ditugu, eta beste biak aldiz, *zuec-hura* sailekoak, *nahi* aditz nagusiari lotuak eta aldaketa fonetiko baten menpean. Bi sailetan ordea, forma sinkopatu eta sinkopatu gabeak agertzen dira, gure usteak zapuztuz.

Hurrena, aditz motaren arabera zer gertatzen den ikustea interesgarria izan daiteke. Lau erroak (izan, *edun, *edin eta *ezan) eta trinkoetako aditz-oinak hartu eta banan banan sail bakoitzeko adibideak (nor, nor-nori, nor-nork, nor-nori-nork) eta ±ahalera den ikustea zatekeen hoberena. Hala ere, gure datu basea mugatua denez, bistan da ezingo ditugula nahi bezainbeste adibide topatu, eta batzuetan adibideak ez dira adierazgarriak, beraz ikus ditzagun erro bakoitzeko adizki esanguratsuenak.

*edun

Hau dugu dudarik gabe erro ugariena, gure 302 sarreretako datu basean 177 adizki erro honetakoak baitira. Gauza jakina denez, objektudun aditzak aurkituko ditugu atal honetan. Erro honekin maizen agertzen den adizkia *zuec-hura*, *oraina*, *-ahalera*, *-agintera* da, hots, *duc/z(i)e*, eta honetatik ateratakoak. Hona adibideak.

- *duze* (AJM 48 49.31s)
- *duzena* (AJM 31 23.2s)
- *eztuzie* (DCC 48 6.11)

⁶ Apececheak *escúra* dakar, baina eskuizkribu originalean azenturik gabe agertzen da.

- *duzie*⁷ (BEJ 33 V.43.3)
- *ducie* (BEJ 26 IV.22.1)
- *estuzienac* (FS2 16 1.22)
- *duzielaic* (AJM 27 18.15s)
- *eztuziena* (IPL 26 7.9-10)
- *eztucena* (BEJ 15 I.26.3)
- *barimbaduze* (K 97 278g)
- *ezpaucie* (BEJ 22 III.12.1)

Denetarik topa dezakegu adibideotan. Deigarri zaiguna lehen begiradan, berriz ere aldaera biak antzematen ditugula da: *-ze(-)* eta *-zie(-)*. Pentsatzekoa litzateke, hain adizki erabilia izanik, forma bateratu bat izan zezakeela autoreak jada, sinkopatuia ziurrenik, sinkopa degradazio moduan ulertzen baldin badugu. Baina argi dago ezetz. Are gehiago, *duzue* hau eta bere aldaerak 94 aldiz agerturik gure datu basean, soilik 34tan dago sinkopatuia. Adizki erabiliena izateak homofoniak sortzen dituzten aldaketa fonetikoak sortzera baino ez darama Lizarraga: *eztuzie* honek objektu plural zein singularrarako balio digu esate baterako. Bestetik, hitz sorta honek agerian uzten du adizki erabilienetan ere Lizarragak duen grafia ezegonkorra.

Nik-zuei-hura saileko *oraina*, *-ahal*, *-agintera* da bigarren adizkirik baliatuena, *diz/c(i)et* adizkiari dagokiona alegia. Adibiderik ez dugu aipatuko, honen aurretik aipatutakoa honi ere gokitu baitakiokeelako. Bildutako 26 lekukotasunetatik 14 daude sinkopatuak, beraz erdia baino zertxobait gehiago. Hemen gertatzen diren aldaketa fonetikoak ere sinkretismora garamatzate zenbaitetan.

***ezan**

Hau da bigarren errorik erabiliena, objektudunetarako hau ere, eta hauen barnean, *+agintera* adizkietarako erabilia gehien bat. Dударik gabe, *zuek-hura*, *oraina*, *-ahalera*, *+agintera* da gehien agertzen dena: aditz batuko *ezazue*, beraz, eta honetarik ateratakoak.

- *zaze* (K 40 183e)
- *zazie* (FM3 15 6.2)
- *zacie* (K 189 5d)
- *etzaziela* (AJM 58 71.32s)
- (egui)*zie*⁸ (AJM 96 3.3s)
- (ema)*ze* (K 202 2e s)
- (icus)*azie* (AJM 31 24.14d)
- (icus)*aze* (AJM 58 71.35s)
- *etzaziela* (AJM 119 2.32-33d)
- *etzazela* (AJM 52 58.48d)

Sorta honetan orotarik topa dezakegu, aurreko adibideetan bezala. Bildu ditugun 61 lekukotasunetatik 21ek *-zie(-)* egiten dute, beraz adizki mota honetan forma laburra nagusitzen da, bi herenetan. Adibideetan ikus daitekeenez ordea, adizkiaren eratorri bera bi

⁷ BEJ laburdura dutenak Bonaparteren ediziotik atera direla aipatua da jada. Bonapartek grafia moldatu zuenetz konprobatu nahi genuen, baina eskuizkribu orijinala ez dugu topatu. Pentsa liteke halere Bonapartek grafia mantendu zuela, adibide honetan adizkia “z”z agertzen delako, eta beherago ipinitakoan “c”z.

⁸ Honakoetan aditz nagusia gehitzea beharrezko ikusi dugu, aditz laguntzailea ongi ulertua izan dadin.

formetan topa daiteke (*icusazie* eta *icusaze*, *etzaziela* eta *etzazela*...) hortaz ezin dugu esan adizkiaren eratorri batzuetan sinkopa erabiltzen duela eta besteetan ez.

izan

Erro honi gagozkiola, sobera agertzen ez dela aipatzea dagokigu, normala dena bestalde, solik Nor-Nori saileko aditzetan topatuko baititugu guk bilatzen ditugun formak (Nor sailean ez ditugu aurkitzen, noski), eta sail honen erabilera eskasa eta zehatza da gainera.

Zuei-hura, *oraina*, *-ahalera*, *-agintera* da agertu zaigun forma bakarra, aski adierazgarria bestalde, honako perpausek adierazten diguten moduan.

- *Zuëi cer zaize idurí?* (K 165 503b)
- *cer idurizaize festagóntas?* (IPL 50 18.9)
- *Cer idurizaize?* (AJM 48 49.32s)
- *Cer iduri zaizie comparaciogóntas?* (FM4 10 3.11)

Hurrenkera eta elementu zenbait aldatzen badira ere sintaktikoki antzekoak dira. Denetan laguntzaile bera erabilirik, denak galderak izanik ere, eta esaldia bera izan arren, bi morfemak agertzen zaizkigu. Lehen adibidean eta hirugarrenean aditz nagusi eta laguntzailea hurrenkera desberdinean agertzen dira, eta biak sinkopatuak ditugu. Bigarren eta laugarren adibideetan esaldi berbera azalduz ere, bi aldaerak dakuskigu. Gainera, aditz nagusi eta laguntzailearen hurrenkerak eraginik ez duela bistakoa da.

*edin

Honen lekukotasun bakarra aurkitu dugu FBn, beraz ezin dugu emaitza adierazgarrikerik atera, gehitzeko bakarra, forma sinkopatugabea dela.

Adizki trinkoetan ere fenomeno morfonologiko antzekoa antzeman daiteke, honako adibideetan ikutea dagoen moduan.

- *Zuéc adoratzen ducie eztaquicéna* (BEJ 26 IV.22.1)
- *Nic dut jatecó janari-bát, zuec eztaquiciena* (BEJ 27 IV.22.2)
- *emén naucáze* (AJM 94 5.8d)
- *Emén ni nauzáze* (sic⁹) / *libre ebéc yádanic* (K 89 176e)

Hauek ditugu trinkoei so, eredurik aipagarrienak. Lehen biek, *jakin* aditzarenek, adizki bera aurkezten digute, bere bi aldaeretan; beha baina, biak obra berean eta elkarrengandik hurbil aurkitzen direla. Azkeneko bi esaldieak antzekoak dira oso, batek izenordain bat sartzen duen arren. Halere, bietan adizki bera agertzen da.

Adizkiaren inguruko elementuei erreparatzea badago, eragina badutenetz argitzeko. –zue(-) morfemari dagokion izenordaina (zuek edo zuei) agertzeak eta non agertzeak zerikusirik bazuen aztertu nahi genuen.

⁹ Apececheak *nauzaze* biltzen du, “z”-z alegia, bere edizioan, hots, guk erabilitakoan. Kuriositateak jota eskuizkribu orijinalera jo genuenean, tinta zirriborroa topatu genuen eta ematen du, gure ustez bederen, “z” idatzi zuela lehenik, eta horren gainean “c” zuzendu.

- *zuéc guziéc izanendúzie escándalo gaurr ene casos* (AJM 44 43.41s)
- *Nic biali-zaiztet zuéc biltzera landu-etzucéna* (BEJ 28 IV.38.1)
- *Beguirá Escritúrac, uste-baitúcie zuéc ayetán duciéla vicitza etérnoa* (BEJ 33 V.39.2)
- *Ezaundu-zaiztet zuéc, eztuciéla Jangoicoaren amórea* (BEJ 33 V.42.1)
- *eznáiz ni zuéc usteduciéna* (IPL 28 8.8-9)
- *zuéc deitzennauze ni Maestru* (AJM 43 41.30s)
- *Arzáze zuéc, ta gurucificazáze* (AJM 51 57.12-13d)
- *Arzázie zuéc, ta orr componzaizte* (DCC 105 2.25)
- *Zuéli cer zaize idurí?* (K 165 503b)
- *Jaun naizeláic, garbitu baitizet zuéli oñac* (AJM 43 42.32-33s)
- *Zuéli nic ematentiziet graciác induziénas enéqui* (IPL 18 3at 11)

Sorta honek erakusten digunez, *zuek* aditzaren aurretik agertzean (justu aurretik edo bestelako elementuak tarteko) bi morfemak erabil ditzake Lizarragak. Berdin izenordaina atzetik agertzen baldin bada, zortzi eta bederatzigarren esaldiek argitzen diguten eran. Adibide hauek berauek azaltzen digute alomorfo bat zein bestea erabiltzeko araua ez dela inolako aditzaren inguruko elementuren araberakoa, sintaktikoki pareko diren perpausen aurrean egonik, txandaketa gertatzen zaigulako. *Zuei* izenordain datiboaren kasuan gisa bereko emaitzak lortzen ditugu.

Baina Lizarragaren obrak duen altxorrik preziatuenetarikoa, azentuak markatu izana da. Gauza jakina da silaba tonikoaren kokalekuak eragina duela sinkopa, erorketa eta aldaketa fonetikoaren kasuan, beraz lotura izan dezake afera honek gure auziarekin. Jakina, bildutako lekukotasun askok ez daramate azenturik; batzuetan testuinguruak berak eskatzen ez duelako (aposizioetan edo koma tartean sartzen diren bestelako elementu supraorazionaletan, hainbat baldintza perpausetan...) edo autoreak berak idatzi ez diuelako, izan ere, ustea badugu, zenbait eskuizkribu edo garaietan, boladaka, azentu koporu handiagoa erabili duela eta berauek jartzeko araua finkoa ez dela. Dena den, hau uste bat baino ez da, ikerketa sakonen faltak deusezten ez duena. Oraingoan azentua idatzia zuten formak baino ez ditugu hautatu, azentu gabeko adibideetan ez baikara kapaz jakiteko azenturik behar ez duen, edo Lizarragari berari paratzea ahaztu zaion.

Oxitonoei erreparatuko diegu lehenik.

- *au eguitenduzién aldioro* (AJM 44 43.1s)
- *icusico-ducé idiquiríc cérua* (BEJ 18 I.51.2)
- *ezpaucie sinésten: nola sinetsico-ducie [...] cerucoac?* (BEJ 22 III.12.1)
- *baduzié jateco deníc cerbáit?* (AJM 59 73.13d)
- *informazaizte óngui aurras, eta aurquitzenduzieláic, bidali [...]* (AJM 27 18.15s)

Ez dira sobera ugariak, baina ikus daitekeen moduan, sinkopatuak eta sinkopatu gabekak daude. Exenplu hauei so, bada pentsatzea galderetan edo mendekoetan egiten direla sinkopatu gabekak, baina paroxitonoekin ikusiko dugun moduan, hau ez da betetzen. Are gehiago, azken adibidean ikus daitekeenez, azentua –zie- morfemaren ondotik dator. Ahultzeak azentudun silabaren aurreko silaban gertatzea ez da arraroa, hemen ordea, ez da ematen.

- *zuén érdian egondá zuéc ezauntzenetzuzéna* (AJM 30 23.39d)

- *zuén érdian egondá zuéc ezauntzeneztuziéna* (IPL 26 7.9-10)
- *zuén érdian egondá zuéc eztuciéna ezauncen* (DCC 114 1.1)
- *estúzie lamentu eguin ta luto ártu* (FM3 11 4.1)
- *eztúcie etorri-nai ene-gána izateco vicitza* (BEJ 33 V.40.1)
- *au dá zuén sémea itsu jaiozéla diozéna?* (AJM 36 31.55)
- *au in eztúze lén, /negoláic zuéqui* (K 89 177e)
- *cein naidúze libre?* (AJM 50 52.3)
- *cein naidúzie bietátic¹⁰, Jesus edo Barrabás?* (K 166 525c)

Paroxitono hauetan ere denetarik daukagu. Azken silaba guri interesa zaiguna denean, forma laburrak eta luzeak aurkitzen ditugu. Berdin –zue- morfema silaba azentuduna denean. Uste dezakegu morfematim hurbil “i” (edo “u”) bat egotearen eraginez sinkopa gertatzea eufoniagatik, baina adibidez lehen bi esaldiek argi frogatzen digute hau ez dela horrela.

Proparoxitonorik ere bada.

- *Eztáquize cer escatzen duzién* (AJM 104 1.20d)

Berezia irudi dakiguke bi adizkietako bat laburtua egotea eta bestea ez. Baliteke dena den, lehen aditza proparoxitonoa izanik eta beraz –ze morfema azentutik urrun egonik, erorketa gertatzea, latinaren eta beste hizkuntza askoren arau fonologikoa delarik hau. Tamalez ez dugu beste adibiderik gure datu basean hipotesi hau erabat bermatzeko.

Esan bezala azentuaren esparrua nahiko labainkorra da Lizarragarengan eta ez du ematen horren arabera sinkopak gertatzen diren, batez ere adibide berberak topatzen ditugulako, batzuk sinkopatu eta besteak ez. Inoiz gertatzen ez dena, -zie(-) aldaeran “i” ak azentua hartzea da. Euskalkietan *duzié* edo *duzié* bezalakoak topatzea ez da zaila. Lizarragarengan ezinezkoa da. Bokal horren ahuleziak alde batetik kasu batzuetan desagertzea ahalbidetzen digu, eta bestetik tonu berezia hartzen du lizarragaren euskarak. Beraz, *ustedúzien* bezalako aditz bat ikusten dugunean, lau silaba kontatuko ditugu: us-te-dú-zien, azkeneko -ie-diptongioa dela ulertuz.

Orain artean ezaugarri morfologiko, sintaktiko eta fonologikoetan oinarritu gara, ikuspegi sinkroniko batetik alegia, baina diakroniatik begiratzea ere komeni zaigu, hegoaldeko goi-nafarreraz ditugun lekukotasunak aztertuz, bai geografikoki nola kronologikoki Lizarraga Elkanokoarengana ahal bezainbeste hurbilduz.

Pentsa daiteke XVIII eta XIX. Mendeetan Elkanoko herrian eboluzioa ematen ari zela, hau da, -zie(-)tik –ze(-)ra urratsa ematen ari zirela, eboluzioa gertatzen ari zela. Zoritxarrez hau frogatzeko datu eskasia dago, Lizarraga delako garai honetako idazle bakarra, ez soilik bere euskalkian, baizik eta Nafarroa osoan.

Hala ere, idazle bakarra izanik, produkzio handikoa izan zen eta bere izkribu guztiak gordetzen direla uste da, hauek garai desberdinetakoak izanik. Batzuetan Lizarragak berak ematen digu izkribuaren data, eta besteetan hurbilketak egin dira. Dena dela, Elkanokoak ematen duen data ezin da jakin liburua hasi edo bukatu zueneko den, pentsatzekoa baita atalka idazten zituela obrak. Jada esan dugunez, Lizarragaren inguruko ikerketa ezak datatze

¹⁰ Originallean *bietátatic* dator, hutsa beraz.

finko eta fidagarri baten faltan uzten gaitu, eta P. Ondarrak¹¹ egin hurbilketetan baino ezin gara oinaritu.

1782. urtekoa dugu esate baterako, *Tratado sobre el matrimonio* (FM). –zue(-) morfemadun zortzi formetatik erdia dago hain justu ere sinkopaturik, beraz urte honetan jada txandaketa ematen zen.

1793an datatuak dira AJMko testuak. 142 forma bildu ditugu guk hautatutako zatian, 79 sinkopatuak direlarik, beraz ,erdia baino zerbait gehiago. Oraindik ere, sinkopa hedatzen ari zela pentsatzea bada.

DCC 1803an dago datatua eta hemendik 29 lekuko jaso ditugu, erorketa bakarrik 10etan emanez, hortaz, atzerapausoa gertatuz.

Baina sinkoparen hedatze honen hipotesia deusezten duena, honakoa da. Lizarragak koplak idatzi zituela badakigu, eta bere eskuizkribu zenbaitetan kopiatu zituen, beraz koplak berberak garai desberdinetako eskuizkribuetan agertzen zaizkigu, nahiz eta Apececheak denak liburu batean bildu dituen.¹² Hau jakinda, koplak horietan guk bilatzen genituen morfemak agertzen ziren begiratu genuen, eta bai. Lehendabiziko koplak 1793 eta 1813 artean daude dataturik eta Apecechearen edizioko 40 eta 188 orrien tartea dagokie. Zati honetan 27 lekukotasun aurkitu ditugu, eta horietatik bakarra ez dago sinkopatua, beste guztiak forma laburrak dira. Hau bitxia dela ematen du, baina bitxiagoa da, sorta honetako poema bat, 1800, 1802 eta 1821eko eskuizkribuetan kopiatu zuela, ñabardura batzuk aldatuz. Ikus ditzagun poema honetako –zue(-)dun formak, urte bakoitzeko lekukotasunetan.

1793-1813

- *Jesus bera emanic / guciec arzáze* (K 86 157b)
- *Jan eta edanzáze* (K86 157d)
- *itenduzenetán / betíro eguinzáze* (K 86 157e)
- *betíro eguinzáze / au ene memorietán* (K 86 157f)

- *Jesus bera emanic / guciec arzaze* (K 188 3b d)
- *Jan eta edanzaze* (K 188 3d d)
- *itenduzenetan / betiro eguinzaze* (K 188 3e d)
- *betiro eguinzaze / au ene memorietan* (K 188 3f d)

1800

- *Jan eta edanzacie* (K 189 5b)
- *Jan eta edanzacie* (K 189 5d)
- *itenduzienetan / betiro eguinzacie* (K 189 5e)
- *betiro eguinzacie / au ene memoriatan* (K 189 5g)

1802

- *Jesus dena emanic / guciec arzáze* (K 191 2b s)

¹¹ Ondarra, P., 1972.

¹² Lizarraga, J., J. Apecechea (arg.), 1983.

- *Jan eta edanzáze* (K191 2d s)
- *itenduzenetan / betíro eguinzáze* (K 191 2e s)
- *betíro eguinzáze / au ene memoríetan* (K 191 2f s)

1821

- *Jesus bera emaníc / gucíec arzáze* (K 190 5b)
- *Jan eta edanzáze* (K 190 5d)
- *itenduzienetan / betíro eguinzaze* (K 190 5e)
- *betíro eguinzaze / au ene memorietan* (K 190 5f)

Ikus daitekeenez, bertso berberak dira urtez urte, aldaketa txiki batzuekin. Guri interesa zaizkigun aldaketak bi dira batik bat. Alde batetik azentuaren ezegonkortasuna aipagarria da. 1793 eta 1813 bitartean idatzitako poemak begiraten baldin baditugu, berdinak direla erraz ondoriozta daiteke. Baina Lizarragak batean azentuak idatzi ditu, eta bestean ez. Baina gureari estuki lotuz, ikusgarria da nola 1800eko bertsioan sinkoparik ez duen egiten, baina aurretiko eta ondorengo bertsioetan bai, gainera ez du urte honetako bertsioan azenturik idatzi. Honek noski, zer pentsa ematen du, batetik, sinkoparten hedatze diakronikoaren ustea ahultzen du eta bestetik autorearen irizpide eta estilo literario falta agerian uzten du. Dena dela, poemetako hizkera jasoagoa dela pentsatzerik bada, batzuetan aditz nagusi eta laguntzailea trukutzen dituelako esate baterako, hortaz, forma sinkopatuak nagusi direnez Lizarragaren kopletan, baliteke forma laburtuak hizkera jasoarekin lotzea. Ematen du, beraz, koplak idaztean hizkuntza gehiago zaindu zuela, gutxienez bere gainontzeko obretan baino sistematikotasun handiagoa ikusten baita urte bateko bertsoen artean, nahiz eta urtez urte irizpide sistematiko hauek aldatu.

Euskalki bereko beste autoreek zer egiten zuten aztertzea egoki iritzi genuen, eta horrela Beriayn¹³ eta Elizalderen¹⁴ doktrinak hartu genituen esku artean, emaitzak oso pozgarriak izan ez baziren ere. Beriaynen kasuan, 1621eko doktrina batez ari gara, eta euskalki berean idatzia egon arren, alde handiak ditu, 150 urte zaharragoa delako alde batetik eta bestaldetik Utergakoa delako, ez Eguesibarrekkoa, Elkanokoa bezala. Hortaz euskarak desberdinak dira oso, Lizarragarenak ekialde eta iparralderanzko lerratze bat duelako. Eta gureari so, Beriaynek –zue(-) morfema beti –zue(-) ebazten du, inolaz ere –zie(-), eta gutxiago –ze(-). Dena dela, Bai Beriaynek bai Lizarragak Iruñeko euskarari idatzi zutelako diote. Lizarragak hau dio:

“Doctrina Christoa euscarás, Aita Gaspar Astete Jesuitac erdarás dacarran guisará guti gora bera, iruiñ aldean usatzen den mintzaéran”¹⁵

eta Beriaynek aldiz, honakoa:

“Escribo en Romance y vascuence, lenguajes de este obispado, y aunque en diferentes partes de él hay en algunas cosas diversos modos de hablar, yo escribo el que se habla en Pamplona, cabeza de este Reino y obispado de Navarra, que es el que se habla en la mayor parte de él, donde se habla vascuence, y el que mejor se entiende en todas las partes...” (hitz banaketa, grafia eta puntuazioa gaurkotua).¹⁶

¹³ Beriayn, I., 1980.

¹⁴ Salaberri, P., 1994.

¹⁵ Lizarraga, J., 1821.

¹⁶ *Op. Cit.* 13. oharra, hitzaurrean.

Biek Iruñeko euskarari idatzi eta hain alde handia egoteak pentsarazten digu, Iruñeko euskara aipatzen dutenean hegoaldeko goi-nafarreaz ari direla, eta ez zehazki Iruñea hirikoaz. Horregatik esaten dute hobekien ulertzen dena dela, Nafarroan hedatuena zegoen euskalkia baitzen. Dena dela, ematen du Lizarraga benetan Iruñeko euskaratik hurbilago egongo zela, geografikoki hala izateaz gain, Iruinaldea aipatzen duelako, segur aski bere herria honen barnean sartuz. Muzkiko Elizalderen doktrina zertan zen ere begiratu genuen, baina –zue(-) morfemadun adibide bakar bat ere ez genuen topatu, beraz ez zigun argibiderik eman.

3. ONDORIOAK

Azterketa xume hau egin ondotik ondorio batzuk ateratzeko tenorea heldu zaigu. Dagoeneko irakurlea ohartuko zen –zue(-)ri dagokionez Lizarragaren sistematikotasun eta arau ezaz, salbuespenak ugariak izanik. Hortaz pentsatzekoa da Elkanoko apaizak ez zuela literatura onik egiteko xederik, eta bere lanen helburua praktikoa, doktrinala zela guztiz. Txandaketa hau beraz, bere gramatika mentaleko anbiguotasun baten adierazgarri da, bere buruak momentuan eskatzen zionaren arabera aldaera bat edo bestea hautatuz, eta segur asko berak ere zergatia azaltzen jakingo ez zuelarik.

Hala ere, apaiz bat ez da pertsona letratugabea, eta bere hausnarketak nagusiki alor erlijiosora mugatzen badira ere, euskaraz idazteko hainbat irizpide finkatzea edo bederen ideia batzuk izan behar zituen. Larramendi beraren hiztegia ezagutzen zuen eta koplari adibidean ikusi dugun bezala, bertsoak kopiafzean aldaera bat hobetsi zuen garai bakoitzean. Bertsoak kopiafzea noski, ez da gauza bat-batekoa, beraz hor ez zituen aldaerak zernahi modutan idatziko, erabat konszientea izan behar zuen egiten ari zen aldaketez.

Ez da zentzugabekeria hortaz, Lizarragak zalantza bat izanen zuela pentsatzea, eta zalantza horretaz konszientea bazela, arazoa nola konpondu jakin gabe, eta are gehiago, auzia konpontzeko inolako beharrik gabe. Gauza segurra da haren parrokiako fidelek mezua argi eta garbi ulertzeko eginak daudela idazkiok, herri hizkeratik hurbil, eta herri hizkeran txandaketak suertatzea ohiko da. Joaquín Lizarragak hainbeste urtez idatzi bazuen, entzuleek doktrina behar bezala harrapatzen zutelako da.

Azkenik, gehitu beharrean gaude konparazio elementu ezak ondorioak ateratzea oztopatzen duela, ez baita jakiten ahal garaiko joera zein zen, orduko literaturan uharte txiki bat izanik idazle hau. Traba izan da bestalde, Lizarragaren inguruko ikerketa urritasuna (eta kalitate eza zenbaitetan), hipotesiak behar bezala bermatzeko oinarririk ez baitago.

4. BIBLIOGRAFIA

- Apecechea, J., 1975. "Programa de vida cristiana en una aldea de la zona de Pamplona en el siglo XVIII. (Tres sermones inéditos de Joaquín de Lizarraga en euskara)". *FLV* VII:19, Iruñea: Príncipe de Viana.
- Apecechea, J., 1978. "Tratado sobre el matrimonio, de Joaquín de Lizarraga (año 1782) (I)". *FLV* X:29, Iruñea: Príncipe de Viana.
- Apecechea, J., 1979. "Tratado sobre el matrimonio, de Joaquín de Lizarraga (año 1782) (II)". *FLV* XI:31, Iruñea: Príncipe de Viana.
- Apecechea, J., 1981. "Tratado sobre el matrimonio, de Joaquín de Lizarraga (año 1782) (III)". *FLV* XIII:37, Iruñea: Príncipe de Viana.
- Apecechea, J., 1982. "Tratado sobre el matrimonio, de Joaquín de Lizarraga (año 1782) (IV)". *FLV* XIV:40, Iruñea: Príncipe de Viana.
- Apecechea, J., 1985. "Tratado sobre el matrimonio, de Joaquín de Lizarraga (año 1782) (V)". *FLV* XVII:46, Iruñea: Príncipe de Viana.
- Apecechea, J., 1987. "Tratado sobre el matrimonio, de Joaquín de Lizarraga (año 1782) (VI)". *FLV* XIX:50, Iruñea: Príncipe de Viana.
- Apecechea, J., 1990. "Tratado sobre el matrimonio, de Joaquín de Lizarraga (año 1782) (VII)". *FLV* XXII:56, Iruñea: Príncipe de Viana.
- Beriayn, I. 1980 [1621]. *Tratado de como se ha de oyr missa, escrito en Romance, y Bascuence, lenguages de este Obispado de Pamplona*. Donostia: Hordago. Ed. Faksimilea.
- Bonaparte, L. L., 1991. *Opera Omnia Vasconice*. Bilbo: Euskaltzaindia. Ed. Faksimilea.
- Euskaltzaindia, 1997. *aditz taulak* [on line].
<http://www.euskaltzaindia.net/arauak/dok/aditza.pdf>. Kontsulta: 2006-02-23.
- González, C. & J.A., Arana, 1989. *L.L. Bonaparte. Eskuizkribuak-Argitarapenak / Manuscritos-Publicaciones*. Katalogoak 1. Bilbo: Euskaltzaindia-Azkue Biblioteka.
- Lizarraga, J. 1793. "Sanduen Vicitzac Euscarás". Eskuizkribua (AGN, Bonaparte funtsa 3).
- Lizarraga, J., 1821. "Doctrina Christoa euscarás, Aita Gaspar Astete Jesuitac erdarás dacarran guisará guti gora bera, iruiñ aldean usatzen den mintzaéran". Eskuizkribua (AGN, Bonaparte funtsa 58). Kopla batzik dakartza bukaeran.
- Lizarraga, J. 1922. *Jabier'tar Frantzisko Santuaren bizitzatxoa*. Iruñea: Aita Kaputxinoak.
- Lizarraga, J. "Bonaparteren eskuizkribuak" [word dokumentua]. Argitaratze bidean Klasikoen Gordailuan: <http://klasikoak.armiarma.com/>.

- Lizarraga, J. “Jesu Kristoren eta Ama Birjinaren bizitzatxoak” [word dokumentua]. Argitaratze bidean Klasikoen Gordailuan: <http://klasikoak.armiarma.com/>.
- Lizarraga, J. “Koplak” [word dokumentua]. Argitaratze bidean Klasikoen Gordailuan: <http://klasikoak.armiarma.com/>.
- Lizarraga, J., J. Apecechea (arg.), 1983. *Koplak*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Lizarraga, J., J. Apecechea (arg.), 2004. *Doctrina Christioaren Cathechima*. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- Lizarraga, J., J. Apecechea & F. Ondarra (arg.), 1994. *Jesukristo, Maria eta santuen bizitzak*. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- Lizarraga, J., P. Ondarra (arg.), 1990. *Urteko igande guztietarako prediku laburrak*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Ondarra, P., 1972. “Producción Literaria de Joaquín Lizarraga (1748-1835)”. *FLV* IV:11, Iruñea: Príncipe de Viana.
- Salaberri, P. 1994. “Elizalderen Apezendaco dotrina christiana uscaras”. *FLV* XXVI:65, Iruñea: Príncipe de Viana.
- Satrustegi, J.M., 1976. “Nuevo documento no catalogado de Joaquín de Lizarraga sobre los bailes”. *FLV* VIII: 23, Iruñea: Príncipe de Viana.